

**EZKERRALDEKO ETA
MEATZALDEKO
MANKOMUNITATEAR
EN ESTATUTUAK**

AURKIBIDEA

Zioen azalpena	3
-----------------------------	---

Atariko titulua

I. Kapituluua: Xedapen Orokorrak	5
II. Kapituluua: Helburuak	6
III. Kapituluua: Sortze Organo Nagusia	7
IV. Kapituluua: Jarduteko abiaburuak eta administrazioen arteko harremanak ..	7

I. Titulua

Mankomunitatearen antolaera	9
--	---

I. Kapituluua: Mankomunitateko organoak	9
II. Kapituluua: Gobernu eta Administrazio Organo gorenak	9
I. Atala: Osoko Batzarra	10
II. Atala: Presidentea	12
III. Atala: Gobernu Batzarra	14
III. Kapituluua: Mankomunitatearen gobernua eta administrazioa artezteko gainerako organoak	15
IV. Kapituluua: Mankomunitatearen gobernua artezteko organo osagarriak .	16

II. Titulua

Gobernu- eta administrazio-organoen jardunbidea	17
--	----

I. Kapituluua: Osoko Batzarra	17
II. Kapituluua: Gobernu Batzarra	19
III. Kapituluua: Osoko Batzarraren Gaien eta Kontuen Batzorde Berezia	19
IV. Kapituluua: Estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioentzat gordetako eginkizunak	20
V. Kapituluua: Gobernu eta administrazioaren araubide juridikoa	22

III. Titulua	
Baliabide ekonomikoak eta Ogasuna	24
IV. Titulua	
Mankomunitateko langileria eta ondarea	25
V. Titulua	
Kideak sartzea eta banantzea	26
I. Kapituluak: Udalak sartzea Mankomunitatean	26
II. Kapituluak: Udalak banantzea Mankomunitatetik	26
III. Kapituluak: Xedapen erkideak	27
VI. Titulua	
Estatutuak aldatzea	28
VII. Titulua	
Mankomunitatea desegitea	29
Lehen xedapen gehigarria	30
Bigarren xedapen gehigarria	30
Hirugarren xedapen gehigarria	30
Xedapen iragankor bakarra	30
Azken xedapenetako lehena	31
Azken xedapenetako bigarrena	31
Azken xedapenetako hirugarrena	31

ZIOEN AZALPENA

Itsasadarraren Ezkerraldeko eta Meatzaldeko udalek borondatezko mankomunitatea eratu zuten 1977. urtean, aipatutako udalerrietan sortzen ziren hiri-hondakinen tratamendua bideratzeko helburuz. Urte horretatik aurrera itxi zen arte, 1988. urtera arte, hain zuzen ere, mankomunitateak Argalarioko hondakindegia kudeatu zuen, Barakaldoko Udalak lagatako lurretan. Geroago, hiri-hondakinen bilketa kudeatu zuen Artigasko zabortegian (Bilbo), eta 2005. urtetik, hiri-hondakinak Zabalgarbi S.A. sozietate mistoari emateko kontratua kudeatzen du, aipatutako sozietateak hondakinok tratatu, deuseztatu eta balioztatu ditzan bere jabetzapeko instalazioan, Arraiz mendian (Bilbo). Mankomunitatea sozietatearen akzioduna da eratu zen unetik bertatik.

Lehenengo mankomunitatea aurreko erregimen politikoaren legeriari jarraiki eratu zen, baina demokraziaren etorrerak (1976-1978), Konstituzioaren onarpenak (1978) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren onarpenak eraldaketa juridiko eta politiko handiak ekarri zituzten. Horien ondorioz, erakunde-araubide berria ezarri zen Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoa eratu zen eta Lurralde Historikoak berrezarri ziren, Batzar Nagusi, Foru Aldundi eta guzti. Aldaketek toki-administrazioei ere eragin zieten –mankomunitateak horien artekoak ditugu–, bai eta erakunde publiko guztiei ere. Eta herri-erakundeetan, hain zuzen ere, hartu du berebiziko garrantzia ingurumenaren zaintzak eta hiri-hondakinen kudeaketak, batik bat, Espainia Europar Batasunean sartu zenetik, hau da, 1986. urtetik aurrera.

1979. urtetik hona, herritarrek hautatzen dituzte zuzenean udaletako organo politikoak, sufragio unibertsalez, eta bozketa lau urterik behin egiten da. Udalen organo gorenak, udalbatzak, ordezkariak aukeratzen ditu Mankomunitateko gobernu-organotan parte hartzeko. Bestalde, 1985. urtetik, toki-erakundeek badute oinarrizko lege bat udalen antolaera eta jardunbidea bideratzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, edo bestela esanda, “Toki Administrazioen Konstituzioa”. Lege horrek toki-erakundeak demokratizatu eta modernizatu zituen, eta eskumenak garatzeko jarduera eta zerbitzu ugari esleitu zizkien, herritarren bizi-baldintzak hobetzeko asmoz.

Mankomunitateak ez dira kanpoan geratu udalek eta gainerako toki-erakundeek izan dituzten demokratizazio eta aldaketei dagokienez. Eskumen-esparruen konstituzio-eta estatu-banaketari jarraiki, Eusko Legebiltzarrak “Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani” buruzko Legea onartu ondoren (1983), Bizkaian, 1995. urtetik aurrera, Bizkaiko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen Foru Araua badaukagu, hau da, Bizkaiko mankomunitateen oinarrizko araua.

Beste alde batetik, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren eraldaketak ez dira bakarrik islatu erakundeen eremu formalean eta euren araubide juridiko eta politikoan, ezpada, beste esparru askotan, gu geu kide gaituen Europako Erkidego garatu eta industrializatuaren ingurumarian. Europa industrializatu horren

adibide bikaina dugu Ezkerraldea, XX. mendean hazkunde demografiko eta industria-garapen izugarria izan zuen eskualdea. Alabaina, horren trukean, sekulako ordaina pairatu behar izan zuen ingurumenaren kaltetan. Hain zuzen ere, joan den mendean, industriaren eta hirien garapen okerraren eraginez, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko habitat naturala ikaragarri andeatu zen, beharbada, mugaz gaindi, eta andeatze hori oso agerian geratu zen hirurogeita hamarreko hamarkadan. Horregatik, aurrerapen handitzat hartu behar dugu Ezkerraldeko eta Meatzaldeko udalak ados jarri izana 1975. urtean, udalerriotan sortzen ziren hiri-hondakinen tratamendua eraginkortasunez kudeatzeko helburuz. Orduan sortu zen Mankomunitatea eta handik aurrera eredugarriak izan dira ingurumena zaintzeko, industria-jarduerak arautzeko eta hondakinak kudeatzeko eman diren arauak betetzen. Gaur egun, horiek guztiak ondokoetara batzen dira: uztailaren 28ko 22/2011 Legea, Estatukoa, hondakin eta lurzoru kutsatuena eta otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Zaintzekoa; eta hiri-hondakinen esparruari gagozkiola, Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala, 2005-2016, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartutakoa abenduaren 16ko 10/2005 Foru Arauaren bidez.

Mankomunitateak, estatutu berriak proposatu dituela, eta erakundea osatzen duten udalek, estatutuak onartu dituztela, berretsi dute eskualdeko erakundeek azken urteotan egindako ahalegin garbia: hiri-hondakinen prebentzioa eta gaikako bilketa, birziklatzeko xedez, hondakinen murrizketa, berreskurapena eta berrerabilera. Horrez gain, iraunkortasuna jomuga duen hiri-hondakinen kudeaketa aldeztu dute, bertan dauden baliabideak ahalik eta gehien baliatuta, hondakinak kudeatzeko aukeren artean, erkidegoaren hierarkiari jarraiki, lehentasun osoz, hondakinen prebentzioa sustatu, birziklatu eta balioztatzeko eta, azkenik, hondakinen soberakina segurtasunez deuseztatzeko, horrek sor dezakeen arriskua guztiz apalduta.

Mankomunitateak eta bere antolaerak berebiziko garrantzia daukate hiri-hondakinen kudeaketaren arlo horretan, eskumen dituen xedeak eraginkortasun eta eragingarritasun osoz kudeatzeko eta, era berean, dimentsionamendu doi-doi, mankomunitateko kide diren udalek ahal denik eta gastu txikiena ordain dezaten, horiek baitira, azken batean, mankomunitatea baliabide ekonomiko nahikoz hornitu behar dutenak behar bezala jardun dezan; horregatik, nahitaezko ondarez eta gutxieneko lanpostu-kopuruz (arduraldi osoz) zuzkitu da.

Nolanahi ere den, antolakunde guztiak eguneratu beharrean daude aldiro-aldiro, eta horregatik aldatu dira honako estatutu hauek. Gainera, gure kasuan, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duenak, mankomunitateen estatutuak aldatzera behartzen du azken legeari jarraiki, 1985. urtetik aurrera izan diren aldaketak txertatzeko helburuz.

Horregatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. artikulua, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen hamaikagarren xedapen iragankorrari

dagokionez; Bizkaiko Udalez Gaiendiko Erakundeak arautzen dituen martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauaren 1. artikulua eta hurrengoek, eta aplikagarria den gainerako legeriak xedatzen dutena aintzat hartuta, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Valle de Trapaga-Trapagaran, Ortuella eta Abanto-Zierbenako udalek, guztiak ere Bizkaiko Lurralde Historikoaren barrukoak, mankomunitatea osatuko dute, honako estatutu hauei jarraiki.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Lurralde-eremua.

1. Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Valle de Trapaga-Trapagaran, Ortuella eta Abanto-Zierbenako udalek mankomunitatea eratu dute euren borondatez udalon eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak elkarlanean gauzatu, antolatu, kudeatu eta emateko helburuz, honako estatutu hauetan jasotzen den eran.

2. Mankomunitatearen lurralde-eremua erakundea osatzen duten udalerrien udal-mugarteena izango da.

2. artikulua.- Izena eta egoitza.

Mankomunitatearen izena hauxe izango da: “Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitatea”, aurrerantzean “Mankomunitatea” eta horren egoitza Portugaleten egongo da, ondoko helbidean: Ignacio Ellacuria parkea 2.

3. artikulua.- Nortasun juridikoa.

1. Mankomunitateak toki-erakundearen izaera izango du eta, beraz, nortasun juridikoa eta ahalmen osoa izango ditu helburuak betetzeko.

2. Hori dela eta, zeinahi ondasun eskuratu, eduki, eskatu, trukatu, zergapetu eta besterendu ahal izango ditu, kontratuak egin, obra eta zerbitzu publikoak ezarri eta ustiatu, obligazioak hartu eta errekursoak jarri, bai eta indarrean dauden xedapenek aitortzen dizkioten egintza guztiak egikaritu ere. Eskumen horiek guztiak estatutu hauetan ezarritako xede eta helburuei lotutako zerbitzuen kudeaketari atxikiko zaizkio.

4. artikulua.- Ahalak.

1. Legez aitortutako toki-erakundea den aldetik, erakundea osatzen duten udalerrien eremuan egikarituko ditu ahalak Mankomunitateak.

2. Eskumenei dagokienez, indarrean dagoen legeriak ezaugarri berdintsuko erakundeei aitortzen dizkien ahal guztiak egikarituko ditu Mankomunitateak, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren heinean eta, nolana ere, ondokoak egikarituko ditu:

- a) Araudiak egiteko ahala eta erakundea antolatzeko ahala.
- b) Tributuak ezartzeko eta finantzatzeko ahalak.
- c) Programatzeko edo plangintza egiteko ahala.
- d) Egintzak zuzenbidearen arabekoak eta bete beharrekoak direla jotzeko ahalak.
- e) Nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalak.
- f) Egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalak.
- g) Ondasunak eta eskubideak ezin enbargatzeko ahala, legeek ezarritako baldintzei jarraiki.

II. KAPITULUA

HELBURUAK

5. artikulua.- Helburuak.

1. Mankomunitatearen xede nagusia da erakundea osatzen duten udalerrietan sortzen diren hiri-hondakinak tratatzeko zerbitzua kudeatzea eta, hala badagokio, zerbitzua gauzatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b) eta 26.1 b) artikuluek xedatzen dutenari jarraiki.

2. Gainera, hiri-hondakinei lotutako beste zerbitzu batzuk kudeatu ahal izango ditu, erakundea osatzen duten udalerriek hala eskatu eta Mankomunitatearen organo gorenak onartuz gero, kideen gehiengo osoz.

6. artikulua.- Eskumenak eskuordetzaz egikaritzea.

Mankomunitateak eskumenak egikaritu ahal izango ditu erakundea osatzen duten udalek eskuordetzan emanda, betiere hiri-hondakinen arloan. Nolanahi ere, eskuordetzeak hitzarmen bidez jasoko dira. Udalaren organo eskumendunak eta Mankomunitatearen Osoko Batzarrak onartu beharko dute hitzarmena. Hitzarmen horretan, zerbitzua emateko era, erantzukizun ekonomikoak eta beste zehaztuko dira.

7. artikulua.- Zerbitzuak ematea.

Mankomunitatearen eskumeneko zerbitzuak ematea, ustiatzea eta kudeatzea indarrean dagoen ordenamendu juridikoak arautzen duen edozein eratan gauzatu ahal izango dira.

III. KAPITULUA

SORTZE ORGANO NAGUSIA

8. artikulua.- Zinegotzien Batzar Nagusia.

1. Mankomunitatea osatzen duten udal guztietako alkateek eta zinegotziek eratuko dute Zinegotzien Batzar Nagusia.
2. Batzar Nagusiaren eginkizunak ondokoak izango dira:
 - a) Honako estatutu hauek aldatzeko ekimena, estatutuon 55. artikulua xedatzen duenari jarraiki.
 - b) Mankomunitatea desegitea eta batzorde likidatzailea izendatzea.
3. Batzar Nagusia batzeko deia behar den guztietan egingo du Mankomunitatearen presidentek.
4. Presidentek idazkari jardungo du, erabakien fede emango du eta bilkuraren akta jasoko du Mankomunitatean zeregin horietan aritu ohi den funtzionarioak.

IV. KAPITULUA

JARDUTEKO ABIABURUAK ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

9. artikulua.- Jarduteko abiaburuak.

1. Mankomunitateak objektibotasun osoz heltzen die bere ardurapeko interes publikoei eta eraginkortasun- eta eragingarritasun-abiaburuei jarraiki jarduten du, aurrekontu- egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudiarekin bat etorritik, Legearen eta Zuzenbidearen menpean jarrita.
2. Auzitegiak eta administrazioarekiko auzien epaitegiek jagon egingo dute Mankomunitateko organoek emandako araudi-ordenantzen eta hartutako erabaki, egingiza eta ebazpenen legezatasuna.

10. artikulua.- Administrazioen arteko harremanen jardute-abiaburuak.

Mankomunitateak eta erakundea osatzen duten udalek, gainerako herri-administrazioek eta zuzenbide publiko zein pribatuko erakundeek elkarrekiko harremanak bideratuko dituzte ondoko betebeharren arabera: elkarri informazioa ematea, lankidetzan eta koordinazioan aritzea eta bakoitzaren eskumen-esparruak errespetatzea.

11. artikulua.- Lankidetzaren harremanak.

Mankomunitatearen eta gainerako herri-administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa erakundeek sinatutako administrazio-hitzarmenen arabera bideratuko da, betiere aplikagarria den legeriak xedatutakoari jarraiki.

12. artikulua.- Laguntza-harremanak.

Erakundearen jardunbidearen eta lankidetzako jardunbidearen ingurumarian, Mankomunitateak hitzarmenak sinatu, kontratuak egin eta akordioak hizpatu ahal izango ditu gainerako herri-administrazioekin eta zuzenbide publiko zein pribatuko beste erakunde batzuekin, Mankomunitatearentzat eta erakundea osatzen duten udalentzat interesekoak diren zerbitzuetan elkarlanean aritzeko.

13. artikulua.- Sustapen-harremanak.

1. Mankomunitateak diru-laguntzak jaso ahal izango ditu beste herri-administrazio batzuetatik, erakunde publikoetatik eta pribatuetatik bere helburuak betetzeko.
2. Bere ardurapeko helburuen esparruan, Mankomunitateak diru-laguntzak eman ahal izango ditu, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrarekin bat etorriz.

14. artikulua.- Aplikazio orokorreko legeria.

Mankomunitatearen antolaerak eta jardunbideak honako estatutu hauetan xedatutakoari men egingo diote, eta modu osagarrian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aplikatuko da; martxoaren 30eko Foru araua, Bizkaiko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituen; eta toki-erakundeei –bereziki mankomunitateei– aplikagarri zaizkien gainerako legezko xedapenak eta erregelamenduzkoak, bai eta aipatutakoak ordeztzen dituzten beste xedapen batzuk ere.

I. TITULUA

MANKOMUNITATEAREN ANTOLAERA

I. KAPITULUA

MANKOMUNITATEKO ORGANOAK

15. artikulua.- Zerrendapena.

1. Mankomunitatearen organo gorenak ondokoak dira:

- a) Osoko Batzarra.
- b) Presidentea.
- c) Gobernu Batzarra.

2. Gainera, Mankomunitateak ondoko organo beharrezkoak ere izango ditu:

- a) Presidenteordea.
- b) Zuzendari teknikoa.

3.- Azkenik, Mankomunitateak ondoko organo osagarriak baliatu ahal izango ditu:

- a) Osoko Batzarraren Gaietan eta Kontuen Batzorde Berezia
- b) Mankomunitateak beste organo osagarri batzuk eratu ahal izango ditu, honako estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki.

16. artikulua.- Mankomunitatearen organoak eratzeko abiaburuak.

1. Udalerrri batek ezin izango du gehiengo osoa eduki Mankomunitatearen organo batean ere.

2. Udalerrri guztiek ordezkaritza izango dute Mankomunitatearen organoetan, Osoko Batzarrean parte hartzen duten kideen bidez.

II. KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANO GORENAK

I. ATALA

OSOKO BATZARRA

17. artikulua.- Osaera.

1. Osoko Batzarra Mankomunitatearen gobernu- eta administrazio-organo gorena da; horren ordezkari eta nortasuna dauzka, toki-erakunde gisa, eta Mankomunitateko presidente aukeratzeko denak zuzenduko du.

2. Mankomunitatea osatzen duten udal guztietako ordezkariak izango dira Osoko Batzarrean. Horretarako, udalek osoko bilkuran aukeratu dituzte ordezkari jardungo duten zinegotziak, ondoko proportzioaren arabera:

- a) 10.000 biztanlerainoko udalek, ordezkari bakarra.
- b) 10.001 eta 25.000 biztanle arteko udalek, bi ordezkari.
- c) 25.001 eta 50.000 biztanle arteko udalek, hiru ordezkari.
- d) 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalek, lau ordezkari.
- e) 100.000 biztanletik gorako udalek, bost ordezkari.

3. Ondore horretarako, Osoko Batzarra berritzeko biztanleen kopurua udal-erroldan ageri den biztanleriaren urteko azken berrikuspen ofiziala hartuko da kontuan, udal-hauteskundeak izandako urteko datari dagokionez.

4. Osoko Batzarreko kideen agintaldia hurrengo udal-hauteskundeetan amaituko da; bestela, zeinahi arrazoi dela tarteko, Osoko Batzarreko kide izateko aukeraketa legitimatu zuen zinegotziak kargua uzten duenean edo dena delako udalak hala erabakitzen duenean amaituko da.

5. Osoko Batzarreko kideak berriro aukeratu daitezke.

6. Osoko Batzarreko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte bilkurretan.

7. Presidenteak berdinketak ebatzi ahal izango ditu kalitateko botoaren bidez, erabakiak gehiago osoa behar duenean izan ezik.

18. artikulua.- Osoko Batzarra berritzea.

1. Osoko Batzarra lau urterik behin berrituko da, udalen osaera ere berritzeaz batera, udal-hauteskundeak egiten direnean. Hala eta guztiz ere, agintaldia amaitutakoan, ordezkariak duten kargudunek jardunean jarraituko dute harik eta Osoko Batzar berria eratzen den arte. Batzarra ezinbestean eratu behar da hauteskundeak izan eta sei hilabeteko epearen barruan. Epe horretan, kargua utzi beharreko kideak administrazio arrunteko eginkizunetan baino ezin ezingo dira aritu, eta ezin izango dituzte akordioak hartu gehiago osoa edo gehiago kualifikatua beharrezkoa bada.

2. Batzarreko karguren bat hutsik geratzen bada heriotzaren, uko egitearen, Mankomunitateko udalen bateko ordezkaria galtzearen edo abarren zioz, dena delako udalak ordezkaria erabaki beharko du hogeita hamar eguneko epean.

19. artikulua.- Eskumenak.

1. Oro har, Osoko Batzarrak izango ditu unean-unean indarrean dagoen legeriak udalen osoko bilkuren inguruan ezartzen dituen eskumenak, betiere Mankomunitatearen helburuei dagokienez. Era berean, aplikagarri izango zaizkio eskumenak eskuordetzan emateari eta erabakiak hartzeko gehiengoaren araubideari buruzko arauak.

2. Edozelan ere, Osoko Batzarrak ondoko eskumenak izango ditu:

- a) Mankomunitatearen estatutuak aldatzeko proposamenak onartzea eta, hala badagokio, Mankomunitatea desegiteko proposamenak onartzea.
- b) Kide berriak onartzea eta kideak banantzea.
- c) Presidente eta presidenteordea izendatzea.
- d) Gobernu-organoen jardura kontrolatu eta fiskalizatzea.
- e) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
- f) Aurrekontuak onartu eta aldatzea; gastuak erabakitzea Batzarraren eskumeneko auzietan eta urteko kontuak onartzea.
- g) Zerga-izaerako baliabideak zehaztea; tarifak onartzea; kreditu-eragiketarako burutzea, kredituen zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10etik gorakoa denean, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua araututako kreditu-eragiketarako ere.
- h) Ondasunak eskuratu eta erabiltzea.
- i) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea.
- j) Beste administrazio publiko batzuek eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
- k) Presidenteari ez dagozkion obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea.
- l) Langile-kopurua eta lanpostu-zerrenda onartzea eta funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoak ezartzea.
- m) Eskumen-gatazken berri ematea beste toki-erakunde batzuei edo herri-administrazio batzuei.
- n) Administrazio- eta auzibide-egintzak bideratzea eta Mankomunitatearen defentsa egikaritzea Mankomunitatearen Osoko Batzarraren eskumeneko gaitan.
- o) Osoko Batzarraren eskumenak eskuordetzan ematea gainerako gobernu-organoei eta Mankomunitatea administratzea.
- p) Osoko Batzarrari dagozkion gainerako eskumenak, onartzeko gehiengo osoa beharrezkoa bada.
- q) Legeek ematen dizkieten gainerako guztiak.

3. Onesteko gehiengo berezia edo osoa eskatzen duten eskudantziak ezin izango ditu eskuordetu Osoko Batzarrak, ezta Osoko Batzarrari modu eksklusiboan legez emandakoak ere

II. ATALA

PRESIDENTEA

20. artikulua.- Presidentea aukeratzea.

1. Osoko Batzarrak, eratzen den edo berritzen den egunean, Mankomunitateko presidentea aukeratuko du kide guztien artetik. Mankomunitateko presidentea Osoko Batzarreko eta Gobernu Batzarreko presidentea edo batzordeburua izango da, honako prozedura honi jarraiki:

- a) Batzarreko kide guztiak presidentegaiak izan daitezke.
- b) Kideetako batek Batzara osatzen duten kideen legezko kopuruaren botoen gehiengo osoa lortzen badu, presidente aldarrikatuko dute.
- c) Kide batek ere gehiengo osoa lortu ezean, bigarren bozketa egingo da, eta presidente aldarrikatuko da boto-kopuru handiena lortzen duen kidea.
- d) Berdinketa izatekotan, agintaldia berdinketa atera duten kideen artean banatuko da eta zozketaz erabakiko da agintaldia nork hasten duen.

2. Aukeratutakoak izendapena onartu eta karguaren jabe egin behar da Batzarraren aurrean, hautapenaren ondorioz eta berehalakoan. Hautatua bilkurara bertaratu ezean, beste Osoko Batzar bat deituko da hurrengo 10 eta 15 eguneko epearen barruan, aurreko paragrafoan esandako ondoreak betetzeko. Batzar horretan ere agertuko ez balitz, arrazoi egiaztaturik eman barik, izendapenari uko egiten diola ulertu beharko da.

21. artikulua.- Presidentearen agintaldia.

1. Presidentearen agintaldiak eta Osoko Batzarrarenak bat etorri beharko dute eta, nolana ere, alkateen inguruko arauak aplikatuko zaizkio, zentsura-mozio eta konfiantza-arazoari dagokienez.

2. Presidenteak karguari uko egingo balio edo zeinahi arrazoi dela kausearen kargua galduko balu, kidearen kargua ordeztu ostean, bidezkoa balitz, Batzarrak berriro hautatuko du presidentea, aurreko artikuluan ezarritako arauari jarraiki.

22. artikulua.- Presidentearen eskumenak.

1. Mankomunitateko presidentek ondoko eskumenak dauzka:

- a) Estatutuak aldatzeko ekimena izatea.
- b) Mankomunitateko gobernua eta administrazioa artezte.
- c) Mankomunitatea ordezkatzeko.
- d) Osoko Batzarraren eta Gobernu Batzarraren bilkurak eta, legezko edo erregelamenduzko xedapenez ezarriz gero, Mankomunitateko edozein organoren bilkurak deitzea eta horietan buru jardutea, eta berdinketak ebatzea kalitate-botoaren bidez.
- e) Mankomunitateko zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- f) Kudeaketa ekonomikoa garatzea, onartutako aurrekontuarekin bat etorriz, gastuak onartzea bere eskumeneko mugen barruan, kreditu-eragiketak hitzartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua araututako kreditu-eragiketak izan ezik, betiere eragiketok aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekitaldiaren barruko zenbateko metatua baliabide arrunten ehuneko 10etik gorakoa ez bada, altxortegikoak aintzat hartu barik; halakoak onartu ahal izango ditu unean uneko eragiketa bizen zenbateko metatua aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten zenbatekoa baino ehuneko 15etik beherakoa denean; ordainketak agintzea eta kontuak ematea, hori guztia Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak xedatutakoari jarraiki.
- g) Lan-eskaintza publikoa onartzea, Osoko Batzarrak onartutako aurrekontuaren eta langileriaren arabera, langileak aukeratzeko eta lanpostuak hornitzeko lehiaketan proben oinarriak onartzea eta finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
- h) Langile guztien burutza gorena betetzea, langileen izendapena eta zehapenak erabakitzea, bai eta korporazioko funtzionarioak zerbitzuetatik banantzea eta langile lan-kontratudunak kanporatzea. Azken kasu bietan, Osoko Batzarrari jakinarazi beharko dio egiten den hurrengo bilkuran.
- i) Auzibide- eta administrazio-egintzak egikaritzea eta Mankomunitatearen defentsan jardutea bere eskumeneko gaietan, bai eta beste organo bati eskuordetzan emanda dizkionean, eta premiazko kasuetan, Osoko Batzarraren eskumeneko gaietan ere. Halakoetan, aipatutako organoari jakinarazi beharko dio egiten den hurrengo bilkuran, berresteko helburuz.
- j) Osoko Batzarrari kaltegarritasun-adierazpena egiteko ekimena izatea, Presidentetzaren eskumeneko gaiei dagokienez.
- k) Presidentearen aginpidearen aurkako desobedientzia zehatzea.
- l) Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, presidenteak horiek kontratatze edo emateko eskumena daukanean eta aurrekontuan jasota daudenean.
- m) Mankomunitatearen erabakiak argitaratu eta bete daitezela agintzea eta horiek betearaztea.
- n) Legeek berariaz aitortzen dizkieten gainerako eskumen guztiak eta beste udal-organo batzuen esku ez daudenak.

2. Nolanahi ere den, presidenteak badauzka Toki Araubidearen gaineko legeriak edo arloko legeriak alkateari aitortzen dizkion eskumen berdinak, eta araubide juridiko berari men egin behar diote, gaiaren arabera unean-unean egokitzen denari jarraiki.

3. Presidenteak eskuordetzan eman ahal du bere eskumenen egikaritzea, Osoko Batzarraren eta Gobernu Batzarraren bilkurak deitzea eta horietan buru jardutea, berdinketak ebatzea kalitate-botoaren bidez, kreditu-eragiketak hitzartzea, langile guztien burutza betetzea, funtzionarioak zerbitzutik banantzea eta lan-kontratudun langileak kanporatzea izan ezik, ezta artikuluko honen 1. ataleko a), h), i) paragrafoetan jasotakoak ere.

III. ATALA

GOBERNU BATZARRA

23. artikulua.- Osaera.

1. Gobernu Batzarra ondokoek osatuko dute: presidentea, presidenteordea eta Batzarreko kide batzuk, presidenteak berak izendatutakoak eta banandutakoak. Osoko Batzarrari jakinarazi beharko dio osaeraren berri eta udalerrri guztiek ordezkaritza izan beharko dute, honako proportzio honetan:

a) 100.000 biztanlerainoko udalek, ordezkaritza bakarra.

b) Beste bat gehiago udalerrri bakoitzeko, 100.000 biztanletik aurrera.

Kideen kopurua zenbatzeko xedez, presidentea eta presidenteordea hautatu direneko udalek ordezkaritza bat gutxiago izango dute.

24. artikulua.- Gobernu Batzarra berritzea.

Gobernu Batzarra Osoko Batzarra berritzen denean berrituko da, udal-hauteskundeak izan ondoren.

25. artikulua.- Eskumenak.

1. Gobernu Batzarraren eskumenak ondokoak dira:

a) Presidenteari laguntzea haren eskumenak egikaritzen.

b) Aurrekontu eta Kontu Orokorraren proiektuaren berri ematea, Osoko Batzarrari bidali baino lehen.

c) Onartutako aurrekontu-likidazioaren gaineko informazioa jasotzea eta aurrekontuaren gauzatze-mailaren gaineko informazioa jasotzea ekitaldian zehar.

- d) Zeinahi hitzarmen-mota onartzea, betiere Mankomunitateko beste organo baten eskumenekoak ez badira, eta horien jarraipena egitea.
- e) Diru-laguntzak emateko deialdien oinarriak onartzea.
- f) Presidenteak edo Osoko Batzarrak eskuordetzan emandako eskumenak egikaritzea.
- g) Legeek edo erregelamenduzko xedapen egokiek ezartzen dituzten eskumenak egikaritzea.

III. KAPITULUA

MANKOMUNITATEAREN GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA **ARTEZTEKO GAINERAKO ORGANOAK**

26. artikulua.- Presidenteordea.

1. Osoko Batzarra ertzen edo berritzen den egunean, presidentea hautatzen duen bilkura berean eta prozedura nahiz botoa emateko araubide berari jarraiki, presidenteordea hautatuko du kide guztien artetik, baina presidenteordea ezin ezingo da presidentearen udal berekoa.
2. Mankomunitateko presidenteordea Osoko Batzarraren eta Gobernu Batzarraren presidenteordea ere izango da.
3. Presidenteak baino ezin izango du presidenteordea kargutik kendu. Halakoetan edo zeinahi arrazoi dela eta presidenteordearen kargua hutsik gertatzen bada, presidenteak Osoko Batzarra deituko du presidenteordea berriro hautatu eta aurrekoa ordeztuko.
4. Presidenteordeak presidentearen ordezkari jardungo du kargua hutsik geratzen bada, presidentea ez badago edo gaixorik badago eta presidenteak eskuordetzan emandako eskumenak egikarituko ditu.
5. Presidenteordeak ezin izango du inola ere ezeztatu presidenteak emandako eskuordetzea, ezta presidentearen eskumenak berriro ere eskuordetzan eman.

27. artikulua.- Zuzendari teknikoa.

Mankomunitateko zuzendari teknikoa lanpostu-zerrendako lanpostu hori betetzen duen karrerako funtzionarioa izango da. Zuzendari teknikoaren eginkizun nagusiak ondokoak izango dira:

- a) Mankomunitatearen zerbitzuak eta jarduerak zuzendu, gainbegiratu eta ikuskatzea, eta horien guztien berri presidenteari ematea.
- b) Mankomunitatearen xede eta helburuei lotutako proposamenak egitea.

- c) Izapidetu beharreko espedienteetan parte-hartzea, horiek proposatzea edo egitea, Mankomunitateko gobernu-organismoek onar ditzaten.
- d) Mankomunitatearen jarduketan berri ematea.
- e) Mankomunitateko organoen bilkuretan parte-hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.
- f) Mankomunitatearen eta Mankomunitatea osatzen duten udalen arteko harremanetan parte-hartzea.
- g) Presidenteak edo Gobernu Batzarrak haren esku utzitako edo eskuordetzan emandako eginkizunak betetzea.

IV. KAPITULUA

MANKOMUNITATEAREN GOBERNUA ARTEZTEKO ORGANO OSAGARRIAK

28. artikulua.- Osoko Batzarraren Gaietan eta Kontuen Batzorde Berezia.

1. Osoko Batzarraren Gaietan eta Kontuen Batzorde Berezia Mankomunitatearen organo osagarria izango da eta ondoko eginkizunak edukiko ditu: Osoko Batzarrak onartu beharreko gaiak aztertu, horien berri eman edo kontsultatzea eta toki-ogasunei buruzko legeriak Kontuen Batzorde Bereziari aitortzen dizkietenak.

2. Udalerri guztietako kideek osatuko dute batzordea eta, aldi berean, ahaleginak egin behar dira lirategi Osoko Batzarrean ordezkariak izan daitezkeen alderdi politiko guztietako kideak egon daitezkeen. Mankomunitateko presidenteak jardungo du batzordeburu, baina eginkizun hori presidenteordeari eman ahal izango dio eskuordetzan.

3. Hala eta guztiz ere, Mankomunitatearen esparruan jarduten duten alderdi politiko guztiek Gobernu Batzarrean ordezkariak izan behar dituzte, Gobernu Batzarrak organo osagarriarena egin ahal izango du Osoko Batzarraren Gaietan eta Kontuen Batzorde Bereziari dagokionez, eta ez litzateke beharizanik egongo batzordea eratzeko. Aipatutako erabakia Osoko Batzarra berri eta presidentea hautatu ondoren hartuko da, eta ondoreak izango ditu dagokion agintaldiaren barruan.

4.- Araututa ez dagoen guztiari dagokionez, Gobernu Batzarrarentzat zehaztutako arauak balioko dute.

29. artikulua.- Batzorde Bereziak eta Batzorde Teknikoak.

1. Presidenteak, ofizioz edo Osoko Batzarraren eskariz, beste batzorde berezi edo batzorde tekniko batzuk eratu ahal izango ditu gai zehatzak jorrazteko, gai horien ezaugarri bereziak edo beste ezaugarri batzuk direla eta.

2. Batzorde bereziak eta teknikoak berez iraungitzen dira, batzordea eratzeko xedea izan den gaiaren gaineko irizpena edo informazioa eman ostean, batzordea eratzeko erabakiak kontrakorik xedatzen ez badu.

3. Presidentetzak eratze-ebazpenean besterik erabaki ezean, batzordeen osaera, antolatze eta jarduteko araubidea Osoko Batzarraren Gaiaren eta Kontuen Batzorde Bereziaren araubidearen antzekoa izango da.

4. Bestetik, presidentek Mankomunitateko kideek eta Mankomunitatea osatzen duten udaletako funtzionario eta teknikari adituek osatutako batzorde teknikoak eratu ahal izango ditu, Mankomunitateari eragiten dioten ataza jakinak, aldi baterakoak edo iraunkorrak, aztertzeko helburuz.

II. TITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOEEN JARDUNBIDEA

I. KAPITULUA

OSOKO BATZARRA

30. artikulua.- Bilkuren araubidea.

1. Osoko Batzarrak ohiko bilkurak, ezohiko bilkurak eta presazko ezohiko bilkurak egingo ditu.

2. Osoko Batzarrak ohiko bilkura egingo du hiru hilerik behin eta ezohiko izaeraz batuko da presidentek deitzen duen guztietan, haren ekimenez edo Mankomunitatea osatzen duten udaletako baten ekimenez, udalaren osoko bilkurak hala onartuko balu. Nolanahi ere, aztergaien zerrenda zehaztu beharko da eta jorratu beharreko gaiek bat etorri beharko dute Mankomunitatearen eskumenekin. Osoko Batzarra batzeko eskaerarik eginez gero, bilkura gehienez ere hilabeteko epean egin beharko da eskaera egiten denetik zenbatuta.

3. Presidenteak erabakiko du deitzen duen bilkura ohikoa edo ezohikoa den, baina ezohiko bilkura egiteko deia izanez gero, horren arrazoia justifikatu beharko du, aztergaien zerrendan ageri den gaiari edo gaiei dagokienez.

4. Osoko Batzarrak eratze-bilkuran erabaki ahal izango du hiruhileko bakoitzeko zein hiletan eta zein astean egingo diren ohiko bilkurak.

5. Presidenteak egingo ditu bilkuren deiak, gutxienez, saioa izan baino hiru egun baliiodun arinago. Deietan, bilkura zein egunetan, zein ordutan eta non egingo den jaso beharko da. Deiarekin batera, aztergaien zerrenda bidaliko da, ordezkariak ebatzi beharreko auziak aztertzea izan dezaten. Era berean, jorrazteko gaiei lotutako dokumentazioa eskuragarri izango dute batzarkideek Mankomunitateko bulegoetan, deia bidaltzen den egunetik bertatik. Batzarreko kideei bidaliko zaie batzeko deia eta hartu izana egiaztatzen duen jakinarazpen-sistema erabiliko da. Horretarako, baliabide elektronikoak baliatu ahal izango dira.

6. Osoko Batzarraren eraketa lehen deialdian baliioduna izateko, Batzarra osatzen duten kideen legezko kopuruaren erdia eta bat gehiago bertaratu behar dira; lehenengo deialdian gehiengo hori izango ez balitz, Batzarra eratutzat joko da bigarren deialdian, ordubete geroago. Dena dela, eraketa baliioduna izan dadin, Batzarra osatzen duten kideen legezko kopuruaren herena bertaratu behar da gutxienez. Ezin izango da bilkurarik egin Mankomunitateko presidentea eta idazkaria edo horien ordezkariak jarduten dutenak bertaratu ezean.

7. Toki araubideari buruzko legeriak Udalaren Osoko Bilkuren esparruan arautzen duen jarduera-araubidea osagarria izango da.

31. artikulua.- Erabakien araubidea.

1. Osoko Batzarrak erabakiak hartuko ditu Toki Araubideari buruzko Legeriak Udalaren Osoko Bilkuren esparruan ezartzen dituen arau eta araubide juridikoari jarraiki.

2. Oro har, bilkurara bertaratu diren kideen botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Berdinketa ateraz gero, presidentearen kalitate-botoak ebatziko du.

3. Nolanahi ere, Mankomunitatea osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak edo gainerako legeek ezarritako auzien inguruko erabakiak hartzeko, besteak beste:

- a) Bandera, entseina edo armarrria aldatzea.
- b) Mankomunitatearen barne-araudia onartzea eta aldatzea.
- c) Beste administrazio batzuek agindutako eskuordetzeak edo kudeaketa-eskeak, legez derrigorrez ezarri ezean.
- d) Ondasun edo zerbitzuen emakida egitea bost urtetik gora, betiere horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 20 baino gehiago denean.
- e) Finantza- edo kreditu-eragiketak onartzea eta kitak eta itzarroteak ematea, eragiketen zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10etik gorakoa denean, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen

Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua araututako kreditu-eragiketak ere.

- f) Ondasunak besterentzea, horien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arruntan ehuneko 20 baino gehiago denean.
- g) Jabari publikoko ondasunen edo herri-ondasunen kalifikazio juridikoa aldaraztea.
- h) Ondasunak doan lagatzea beste herri-administrazio edo erakundeei.
- i) Legeak ezarritako gainerako guztiak.

II. KAPITULUA

GOBERNU BATZARRA

32. artikulua.- Bilkuren eta erabakien araubidea.

1. Gobernu Batzarra, gutxienez, bi hilerik behin batuko da, Mankomunitateko presidentek dei egin ostean. Era berean, Gobernu Batzarra osatzen duten kide guztien laurdenak Presidentetzari aurretiaz eskatuta ere batu daiteke. Eskatzaileek eskarian zehaztu beharko dituzte jorratu beharreko gaiak.

2. Gobernu Batzarra baliotasunez eratu dadin, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa bertaratu behar da. Quorumik egon ezean, Batzarra bigarren deialdian eratuko da, lehen deialdia egin eta ordubetera. Bigarren deialdian, nahikoa da kide guztien herena bertaratzea, betiere hiru kide gutxienez.

3. Deia bidaltzen denetik bilkura egiten den arte bi egun balioudun baino denbora luzeagoa igaro behar da, ezohiko eta presazko bilkuretan izan ezean.

4. Gobernu Batzarraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Erabakiarekin ados ez daudenek boto partikularra eman ahal izango dute eta idatziz jasoko da bilkuraren aktan.

III. KAPITULUA

OSOKO BATZARRAREN GAIEN ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA

33. artikulua.- Bilkuren eta erabakien araubidea.

1. Batzorde Berezia eratzen denean, ondoko kasuetan batuko da:

- a. Presidenteak deitzen duen guztietan.

- b. Batzordeko kideetatik gutxienez heren batek eskatzen duenean. Halakoetan, presidenteari eskaera bidali beharko zaio, aztergaien zerrenda eskaerari gehituta. Presidenteak hurrengo hiru eguneko epearen barruan deitu beharko du, betiere proposatutako gaiak bere eskumen-esparrukoak badira, eta batzarra gehienez ere hamar eguneko epean egin beharko da, eskaera egin zen egunetik zenbatzen hasita.
2. Idazkaritzaren laguntzaz, batzar-deia eta batzarrean aztertu beharreko gaien zerrenda prestatu eta bidali beharko du presidenteak, gutxienez batzarra izan baino bi egun lehenago, presidenteak presazkotzat hartutako batzarrei dagokienez izan ezean.
3. Batzar-deia bidaltzen den unetik bertatik, batzordeko kideek eskuragarri izango dituzte aztertu edo irizpena eman beharreko espedienteak. Ildo horretan, espedienteok osorik aurkeztu behar dira eta horietan parte hartzen dutenek behar bezala sinatuta.
4. Batzordearen irizpenak aginduzkoak baina ez-lotesleak izango dira.
5. Batzordearen bilkurak baliiodunak izateko, gutxienez, batzordeko hiru kide bertaratu beharko dira, lehen deialdian nahiz bigarren deialdian.
6. Presidenteak batzordearen eztabaidak zuzendu eta antolatuko ditu bere erabakimen zuzurraren arabera, osoko bilkurak artezten dituzten abiaburu orokorrei jarraiki.
7. Presidenteak eskatu ahal izango du batzordearen bilkuretan Mankomunitateko nahiz erakundea osatzen duten udaletako kideek edo langileek parte har dezaten, informazio-ondoretarako.
8. Aurreko arauetan ezartzen ez den guztia dela eta, Gobernu Batzarraren jardunbideari buruzko xedapenak aplikagarriak izango dira, presazko bilkurei dagokienez izan ezean. Halakoetan, batzordeko kideek ez dute ezer erabaki beharko aurretiaz, baina presazko bilkura guztietan, presidenteak hasi beharko du saioa, bilkuraren premia bidezkoitzen duten arrazoiak azalduta.

IV. KAPITULUA

ESTATURAKO GAIKUNTZA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETA KO EGINKIZUNAK

34. artikulua.- Gordetako eginkizunak eta lanpostuen lekapena langileen zerrendan gordetako eginkizunetan jarduteko.

1. Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako Mankomunitateko eginkizunak erakundea osatzen duten udaletan aritzen diren

eskala horretako funtzionarioek, Idazkaritza eta Kontu-hartzailletza azpieskalakoek, sarrera edo goragoko kategoriakoek, gauzatuko dituzte.

2. Hala eta guztiz ere, Mankomunitateko jardunbide-gastu ezinbestekoak ahalik eta txikienak izan daitezten, Mankomunitateko langile-zerrendan ez da lanpostu iraunkorrik izango funtzionario-mota horientzat gordetako eginkizunetan jarduteko. Mankomunitateko organoek jagon beharko dute lekopen edo dispentsa hori bete dadin.

35. artikulua.- Idazkaritza eta Kontu-hartzailtzako eginkizunetan jardutea.

1. Azpieskala bakoitzeko funtzionario egokiek jardungo dute gordetako eginkizunetan, dena delako udaleko lanpostu nagusian betetzen dituzten eginkizunetara metatuta. Dena dela, funtzionarioek haborokina jasotzeko eskubidea izango dute, Mankomunitateko aurrekontuaren kargura, betiere dagokion araudiak ezartzen dituen gehieneko mugen barruan.
2. Ildo horretan, agintaldi bakoitzaren hasieran, Osoko Batzarra berritu ostean, Batzarrak Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskumendunari helaraziko dio aipatutako eginkizunak agintaldiaren barruan beteko dituzten gaikuntzako funtzionarioak izendatzeko proposamena, presidentearen ekimenez. Izendatzeko proposamena aurreko ekitaldian eginkizun horiek bete ditu(zt)en funtzionarioari edo funtzionarioei badoakie, nahikoa izango da Batzarrak berrestea, proposamena Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskumendunari bidali beharrik izateke.
3. Hala ere, izendatutako funtzionarioek eta zerbitzua ematen duteneko udaleko Alkatetzak onetsi beharko dute Mankomunitatearen proposamena.
4. Gaixotasuna edo oporrak direla eta, funtzionarioak ordeztari gagozkiola, araudi egokiak xedatzen duenari men egin beharko zaio.
5. Gordetako eginkizunak betetzen dituen idazkariak Mankomunitateko organoen bilkura eta saioetan parte hartuko du, eta hitza izango du baina botorik ez.

36. artikulua.- Diruzaintza.

1. Mankomunitateko funtzionario batek edo bertako kide batek beteko ditu Diruzaintzaren berezko eginkizunak.
2. Ildo horretan, agintaldi bakoitzaren hasieran, Osoko Batzarra berritu ostean, izendapen egokia egingo du Batzarrak, presidentearen ekimenez.

3. Irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 5. artikulua arautuko ditu Mankomunitateko diruzainaren eginkizunak. Horien artean, honako hauek zehaztuko ditugu beren-beregi:

a) Mankomunitatearen funtsak, balioak eta efektuak erabili eta zaintzea, indarrean dauden legezko xedapenek ezartzen dutenari jarraiki.

b) Diru-bilketako Zerbitzuen burutza zuzentzea.

V. KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

37. artikulua.- Mankomunitateko organoen bilkuren aktak.

1. Gordetako eginkizunetan jarduten duen idazkariak Mankomunitateko organoen akta-liburuak kudeatuko ditu, toki-erakundeei eskatzen zaizkien betekizun guztiak aintzat hartuta. Mankomunitateko kontularitza ere betekizun horietara egokituko da.

2. Mankomunitateko presidentearen edo haren eskuordetzan jarduten duen kidearen erabakien liburuak aurreko artikuluetan ezarritako betekizun berdinei lotuko zaizkie.

3. Idazkariak akta-liburuak zainduko ditu, bere erantzukizunpean, Mankomunitatearen egoitzan, eta ez du handik ateratzeko baimenik emango edozein aitzakia dela eta, ezta zeinahi mailatako agintariak eskatuta ere.

4. Liburu horretan jasotako erabakien egiaztagiriak edo lekukotasunak egin beharko ditu, agintari eskumendunek ofizioz hala eskatzen dutenean.

5. Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 50, 51 eta 52. artikuluetan ezarritako arauak eta dekretua garatzen duten arauetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkie Osoko Batzarraren eta Gobernu Batzarraren bilkuren aktei.

38. artikulua.- Presidentetzaren ebazpenak.

Presidentetzak Mankomunitatea administratuko du eta egintzak nahiz erabakiak idatziz jasoko ditu, halako guztiei <<ebazpena>> izena jarrita. Ebazpenak presidentearen izenean gertatuko dira eta administrazio-ebazpenak eskuordetzan ematen direnean, egoera hori agerraraziko da beren-beregi. Halakoetan, ebazpena onetsi duen agintariak emandakotzat joko da. Ebazpenek balioa izango dute sinatu ondoren, eta idazkariak kontu hartuko die. Ebazpenak hurrenez hurren eta dataren

hurrenkeraren arabera bilduko dira, eta ebazpen-liburu bat gertatuko da ekitaldi bakoitzeko.

39. artikulua.- Erabaki eta ebazpenen argitalpena eta jakinarazpena.

Erabaki-indarra dutenean, Osoko Batzarrak eta Gobernu Batzarrak hartzen dituzten erabakiak legez ezarritako eran argitaratu eta jakinaraziko dira. Betekizun berdinak aplikatuko zaizkie Mankomunitateko presidentearen ebazpenei eta eskuordetzan jarduten duten Mankomunitateko kideek emandako ebazpenei.

40. artikulua.- Ziurtagiriak.

1. Idazkariak egingo ditu beti erakundeko gobernu-organoen egintza, ebazpen eta erabakien inguruko ziurtagiri guztiak, bai eta Mankomunitateko bulegoetan gordetzen diren liburu eta agirien kopiak eta ziurtagiriak ere, besterik xedatzen duen berriazko manurik egon ezean.

2. Ziurtagiriak Mankomunitateko presidentearen aginduz eta berak ontzat emanda egingo dira. Horrek esan nahi du ziurtagiriak egiten eta onesten dituen idazkariak edo funtzionarioak karguaren jardunean diharduela eta horren sinadura egiazkoa dela. Ziurtagiriek Mankomunitatearen zigilua eraman beharko dute eta, bidezkoa bada, ordainarazpenari buruzko araudiaren arabera itzuliko dira, halakorik balego.

3. Mankomunitateko gobernu- eta administrazio-organoen ebazpen eta erabakien inguruko ziurtagiriak egin ahal izango dira ebazpen-erabakiok jasotzen dituzten aktak onartu baino lehen, betiere egoera horren berri jakinarazten bada, akta onartzen denean sorrarazten diren ondoreetara baldintzatuta.

41. artikulua.- Erregistro orokorra.

1. Mankomunitateak erregistro orokorra izango du, bertan jasotzen diren agirien sarrera eta behin betikotasunez igortzen diren agirien irteera argiro jasotzeko helburuz.

2. Erregistro orokorra jendearentzat zabalik egongo da egun baldiodun guztietan, administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian arautzen den ordutegian.

3. Erregistro orokorraren antolaera dela eta, Mankomunitatea hartzaile edo bidaltzaile duten agiri guztien sarrera eta irteera bermatuko da. Erregistroaren liburuak edo dokumentu-euskarriak ezin izango dira Mankomunitatearen egoitzaatik atera zeinahi arrazoi dela kausa. Nolanahi ere, liburuok edo euskarriok kontsultatu ahal izango dira gordetzen direneko lekuan bertan edo ziurtagiriak eta lekukotasunak eginez.

42. artikulua.- Ordezko araubidea.

Arautu ez eta Mankomunitatearen izaera dela eta aplikagarri zaion guztiari dagokionez, ondokoek izango dute balioa:

- a) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta Toki Araubideari buruzko gainerako legeak;
- b) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- c) 3/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, Bizkaiko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituena.
- d) Toki-erakundeei aplikatu ahal zaizkien gainerako arauak.

III. TITULUA

BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA OGASUNA

43. artikulua.- Baliabide ekonomikoak.

Bizkaiko Toki Ogasunak arautzen dituen foru araudiaren esparruan, ondokoek osatuko dituzte Mankomunitatearen baliabide ekonomikoak:

- 1.- Mankomunitatea osatzen duten udalek egindako ekarpenak.
- 2.- Mankomunitateak ezar ditzakeen tasak eta prezio publikoak, Toki Ogasunak arautzen dituen legeriari jarraiki eta zerga-ordenantzetan xedatzen den eran.
- 3.- Europar Batasunetik, Estatuko Administrazioetik, Euskal Autonomia Erkidegotik, Bizkaiko Foru Aldunditik edo izaera publiko nahiz pribatuko erakundeetatik eskuratzen diren diru-laguntzak, zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk, legatuak eta dohaintzak.
- 4.- Kreditu-eragiketetatik datozen baliabide ekonomikoak.
- 5.- Mankomunitatearen esparruko isunak eta zehapenak.
- 6.- Zuzenbide pribatuko sarrerak.
- 7.- Zerbitzu eta ustiapenen ziozko etekinak.
- 8.- Ondarearen errentak eta beste produktu batzuk.
- 9.- Legez lor daitekeen beste edozein sarrera.

44. artikulua.- Ohiko eta ezohiko ekarpenak.

1. Mankomunitatea osatzen duten udalerrien ohiko ekarpenak ditugu erakundeak ematen dituen zerbitzuen mantentze- eta ustiapen-gastuei aurre egitekoak, Mankomunitatearen helburuekin bat etorriz.

2. Ezohiko ekarpenak, berriz, instalazioen hastapen-gastuei edo instalazioak handitzeko gastuei aurre egitekoak ditugu, bai eta burutzen diren kreditu-eragiketen ziozko ekarpena edo urteko interesak ordaintzeko erabiltzen direnak ere.

3.- Ekarpenak derramaz banatuko dira Mankomunitatea osatzen duten udalerrien artean, ondoko moduluen arabera, jarraian zehazten diren zerbitzuei heltzeko:

a) Hondakinak tratatu eta deuseztatzeko zerbitzuari aurre egiteko eta mantentze-gastuak ordaintzeko.

Udalerri bakoitzetik datorren tona metrikoen kopuruaren arabera.

b) Gainerako zerbitzuak, jarduerak eta eragiketak:

Udalerri bakoitzeko biztanle-kopuruaren heinean, biztanleriaren udal-eroldaren azken urteko berrikuspenean jasota dauden datu ofizialen arabera.

45. artikulua.- Bermeak.

1. Mankomunitatea osatzen duten udalerriek hitzematen dute udal-aurrekontuetan beharrezko kopuruak esleituko dituztela hartutako betebeharrei eta konpromiso ekonomikoei erantzuteko.

2. Ondore guztietarako, ekarpen ekonomikoak derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketatzat hartuko dira.

46. artikulua.- Aurrekontuen araubidea.

Mankomunitateak ondoko guztiak onartuko ditu urtero-urtero: sarreren eta gastuen aurrekontua; aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa; eta urteko kontua, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru araudiak ezartzen duen eran eta epeen barruan.

IV. TITULUA

MANKOMUNITATEKO LANGILERIA ETA ONDAREA

47. artikulua.- Langileria.

Mankomunitateak langileria nahikoa izango du erakundea eratzen deneko eginkizunetan jarduteko, eta langile horiei tokiko funtzio publiko edo lan arloko

funtzio publikoari dagozkien arauzko xedapenak aplikatuko zaizkie, langile funtzionario edo lan-kontratadun langile diren.

48. artikulua.- Ondarea.

1. Jabari publikoko zeinahi ondasunek, ondare-elementuek eta erakundea eratzen denean zein geroago legez eskuratutako eskubideek eta akzioek osatuko dute Mankomunitatearen ondarea. Ondore horretarako, inbentarioa jaso beharko da, arlo horretan indarrean dauden xedapenetan ezarritakoari jarraiki.

2. Mankomunitatea osatzen duen erakunde bakoitzak ondarean izango duen partaidetza hasiera batean eta geroago ezarriko da, udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera, udal-errolda aintzat hartuta.

V. TITULUA

KIDEAK SARTZEA ETA BANANTZEA

I. KAPITULUA

UDALAK SARTZEA MANKOMUNITATEAN

49. artikulua.- Kide berriak sartzea.

1. Hurbiltasun geografikoa dela eta, udalerrri mugakideak sartu ahal izango dira Mankomunitatean.

3. Mankomunitatean beste udalerrri batzuk sartzeko, udal interesdunaren osoko bilkurak eskatu beharko du, gehiengo osoz hartutako erabakia dela bide, eta Mankomunitatearen Osoko Batzarrak gehiengo osoz onartu beharko du sarrera. Mankomunitatean sartzeko erabakian adieraziko dira sartu ahal izateko bete behar diren baldintza orokorrak eta bereziak.

II. KAPITULUA

UDALAK BANANTZEA MANKOMUNITATEAN

50. artikulua.- Borondatezko banantzea.

1. Mankomunitatea osatzen duen udalerriren bat bere borondatez erakundetik banandu ahal izateko, bertan irauteko gutxieneko aldia igaro ondoren, udal interesdunaren osoko bilkurak onartu beharko du banantzea, gehiengo osoz erabaki ere; gainera, udal interesduna egunean egon behar da Mankomunitateari egin beharreko ekarpenei dagokienez eta erakundean iraun beharreko gutxieneko denbora igaro behar izan da; bestetik, banantzearen zioz sortzen diren gastuak ordaindu beharko ditu, bai eta pasiboari dagokion zatia ere; azkenik, Mankomunitatearen Osoko Batzarrak onartu beharko du banantzea, gehiengo osoaren aldeko botoz, udal interesduneko ordezkarien botoak kontuan hartu barik, eta banantzeko erabakian banantzearen ziozko baldintzak adierazi beharko dira.

51. artikulua.- Nahitaezko banantzea.

Mankomunitatea osatzen duten udalerriek beren-beregiko ahalmena ematen diote erakundearen Osoko Batzarrari, beraren iritziz, udalen batek legetan edo estatutuetan ezarritako betebeharrak larriki eta behin eta berriro urratzen dituenean, Batzarrak udal hori Mankomunitatetik banantzea izan dezan, kide guztien bi herenen aldeko erabakia dela bide.

III. KAPITULUA

XEDAPEN ERKIDEAK

52. artikulua.- Mankomunitatean irauteko gutxieneko aldia.

1. Mankomunitatea denbora mugagabez eratuko da, erakundearen eraketa sorrarazi duten helburuen iraunkortasuna dela eta.
2. Mankomunitatea osatzen duten udalek hitzematzen dute gutxienez sei urteko aldian iraungo dutela erakundean, honako estatutu hauek onartzen direnetik zenbatzen hasita.
3. Mankomunitatean beste udalen bat sartuz gero, erakundean irauteko gutxieneko aldian egongo direla hitzeman beharko du.

53. artikulua.- Mankomunitatean sartzearen edo Mankomunitatetik banantzearen ondorioak.

1. Udal bat edo udal batzuk Mankomunitatetik bananduz gero, erakundeak ez du likidaziorik egin beharko; hala, izapide hori etenda gera daiteke harik eta Mankomunitatea desegiten den arte, eta data horretan, erakundea osatzen duten udalek parte hartuko dute eurei dagokien zati alikuotan, Mankomunitatearen ondasunak likidatzen direnean.

2. Hala eta guztiz ere, inguruabar partekatuak direla eta, partaidetzaren ordainketa osorik edo zati batez aurreratu ahal izango zaie banandutako udalei eta partaidetza horri dagozkion elementuak edo instalazioak esleituko zaizkie banandutako udalek era eskusiboan erabil ditzaten.

54. artikulua.- Publizitatea.

Udalak Mankomunitatean sartzeko edo Mankomunitatetik banantzeko erabakia "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu beharko da eta Bizkaiko Toki Erakundearen Foru Erregistrora helarazi beharko da, bertan inskribatzeko xedez, legez ezarritako gainerako erregistro guztietan inskribatzeari kalterik egin gabe.

VI. TITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

55. artikulua.- Estatutuak aldatzeko ekimena.

Mankomunitatearen estatutuak presidentearen ekimenez aldatu ahal izango dira edo, bestela, Batzar Nagusia edo Osoko Batzarra osatzen duten kide guztien herenaren eskariz.

56. artikulua.- Izapidetzea.

1. Mankomunitatea osatzen duten udalen gehiengoak onartu beharko du estatutuak aldatzeko proposamena, eta jendaurreko informazio-aldia zabaldu beharko da 30 eguneko epean. Epea igarota, estatutuak aldatzeko proposamena Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenaren menpean jarriko da, epe berdinean.

2. Azkenik, horrela onartutako estatutuen aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta erregistro egokietan inskribatuko da.

57. artikulua.- Udalak Mankomunitatean sartzearen edo mankomunitatetik banantzearen ondorioak.

Udalak mankomunitatean sartzeko edo Mankomunitatetik banantzeak ez du nahitaez sorraraziko estatutuak aldatzeko beharra, estatutuetan ezarritako organo gorenen ordezkari eta finantzabideari buruzko irizpideak aldatu ezean.

VII. TITULUA

MANKOMUNITATEA DESEGITEA

58. artikulua.- Mankomunitatea desegiteko arrazoiak.

Mankomunitatea ondoko arrazoiengatik desegingo da:

- a) Legezko xedapenez.
- b) Osoko Batzarrak erabakitzen duenean, honako estatutu hauen 31.3 artikulua ezarritako quoruma dela bide eta erakundea osatzen duten udalen gehiengo osoaren aldeko botoz, Batzarra eratzeko edo udalak sartzeko beharrezkoa den quorum berdina dela bide.
- c) Mankomunitatea osatzen duten udal batzuen banantzearen zioz, erakundeak irautea eraginkorra ez balitz eta erakundearen jarraipena ezinezkoa balitz; bestela, erakundearen xedea edo helburuak etorkizunean ezin betetzea ekarriko lukeen beste edozein inguruabarren zioz.

59. artikulua.- Desegitearen ondorioak: likidazioa.

1. Mankomunitatea desegitean, Osoko Batzarrak Batzorde Likidatzailea izendatu beharko du, eta batzordeak Mankomunitatearen ondasun, eskubide eta zerbitzuen inbentarioa egingo beharko du. Batzordeak ondasun, eskubide eta zerbitzuak erabiltzeko proposamena egingo dio Osoko Batzarrari, eta horrek onartu beharko du kide guztien gehiengo osoz.

2. Hasteko eta bat, Mankomunitateak egindako zorrak ordaintzeko erabiliko dira ondasunak. Gainerakorik balego, une horretan Mankomunitatea osatzen duten udalerrien artean banatuko litzateke, udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera, udal-errolda aintzat hartuta. Bestalde, zorrak Mankomunitatearen ondare-baliabideak baino handiagoak balira, Mankomunitatea osatzen duten udalerriek xurgatu beharko lukete zorra, arestian adierazitako irizpideari jarraiki.

3. Mankomunitateko langileak erakundea osatzen duten udalen artean banatuko dira. Ondore horretarako, lehenik eta behin, Osoko Batzarraren erabakiari men egingo zaio, Batzorde Likidatzailearen proposamenez, eta Mankomunitateko enplegatu publikoak plantillan txertatu nahi duten udalen interesa aintzat hartuko da. Erabakirik izan ezean edo erabakiak langile guztiak kontuan hartuko ez balitu, Batzorde Likidatzaileak gainerako langileak udaletan banatzeko proposamena egingo du biztanleriaren arabera, era proportzionalan, langile guztiak hurrenez hurren esleituz, guztizko kopurua agortu arte.

4. Era berean, Batzorde Likidatzaileak Osoko Batzarrari proposatuko dio artxiboa eta Mankomunitatearen gainerako agiriak non kokatuko diren; proposamena

egiterakoan, artxiboaren batasuna balioetsiko du jardunbide- eta zaintza-bermerik handienak eskaintzen dituen Mankomunitateko udal batean gordetzeko.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako estatutu hauei jarraiki gobernatzeko den Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitateak “Nerbioiren Itsasadarraren Ezkerraldeko Udalen Mankomunitatea” izenekoak ordeztuko du ondore guztietarako. Horrela deritzon mankomunitatea 1976. urtean eratu zen.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako Estatutu hauek behin betiko onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, Mankomunitatea osatzen duten udalen osoko bilkurek 2011-2015 agintaldian izendatutako kideek, aurreko estatutuen arabera, karguak hartuko dituzte honako estatutu hauetan araututako organo baliokideetan.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Mankomunitateko Kontratazio Mahaia eratu da kontratuaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean eta ondokoek osatuko dute:

Presidentea: Mankomunitateko presidentea edo Osoko Batzarreko kide eskuordetua.

Mahaikideak: gutxienez lau kide, eta horien artean, beharrezkoa izango da zuzendariak, Mankomunitateko idazkariak eta Mankomunitateko kontu-hartzaileak parte-hartzea. Gainerako kideak eta ordezkariak Mankomunitatea osatzen duten udaletako funtzionarioak izango dira, dagokion espezialitatearen arabera, funtzionarioak lan egiten dueneko udaleko Alkatetzak aurretiaz onartzen badu.

Idazkaritza: Mankomunitateko idazkaria edo funtzionario eskuordetua.

Beharrezkotzat joz gero, Mahaiak beste funtzionario batzuk edo kanpoko teknikariak deitu ahal izango ditu bilkuretara, aholkulari gisa, eta hitzarekin baina botorik gabe parte hartu ahal izango dute eztabaidetan.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Mankomunitate honek ZABALGARBI, S.A. sozietatearekin sinatutako kontratuak daukan garrantzia eta ondorioak aintzat hartuta, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan sortzen diren hiri-hondakinak eman eta tratatzeko helburuz balorazio

energetikoaren sistemaren bidez, esan beharra dago kontratuaren iraupena hogeita bost (25) urtekoa dela eta 2005eko ekainean indarrean hasi zela, baina 50. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Mankomunitateko kideek erakundean jarraituko dute aipatutako kontratua amaitu arte, hau da, 2030. urtera arte; dena dela, erakundean jarraituko dute aipatutako kontratua amaitutzat eman arte, 2030. urtea etorri baino lehen gertatzen bada.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Honako estatutu hauetan jasotako xedapenak beteko dira Mankomunitateei aplikatu ahal zaizkien estatuko, erkidegoko edo foruko araei kalterik egin gabe, bigarren mailako beste betekizun batzuk edo prozedura-betekizunak bete behariko balira Mankomunitatearen erabakiak baliodunak edo eraginkorrak izateko.

Edozelan ere, aipatutako legeria honako estatutu hauen osagarri gisa aplikatuko da, estatutuotan arautzen ez den guztiari dagokionez.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Mankomunitateko presidentek ahalmena dauka egin beharreko egintza guztiak bideratzeko, Mankomunitatearen inskripzioa edo datuen zuzenketa egiteko legez ezarritako erregistroetan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Lehengo Herrizaintza Ministerioak 1976ko arazoaren 26ko Dekretua dela bide (EAO, 306 zk., 1976ko abenduaren 22koa) onartu zituen estatutuak baliorik gabe geratzen dira.